

Hernanik kronika

TOKIKOM 2014ko urtarrilaren 20a, astelehena ::: 4.619 zk. ::: www.kronika.net

HIRUGARREN ADINA, HIRUGARREN MUNDURAKO ONGD - 'FE Y ALEGRIA'

Guatemalan, hezkuntza teknikoak duen garrantziaz ariko dira gaur

«Gazteen %50ak baino gehiagok ezin du bigarren hezkuntzara iritsi. Zenbait tailerren bidez, hezkuntza akademikoa osatzen dugu», azaldu dute. Hitzaldia 18:30etan izango da Biterin.

HITZALDIA emango dute gaur, Hernanin, Hirugarren Adina, Hirugarren Mundurako ONGD eta Guatemalako Fe y Alegria elkarteak kideek. Gaia, honakoa: *Hezkuntza teknikoak bizitzak aldatzen ditu Guatemalan*. 18:30etan izango da Biterin.

Gazteei, aukera berriak
Guatemalan, gazteek ikasteko

aukerarik ez dutela azaldu dute: «Guatemalan erabat orokortutako pobrezia egoera bizi dute, indarkeriak eta gazteentzako aukera faltak larriagotuta. Lehen hezkuntzako ikasketak bukatzen dituzten gazteen % 50ak baino gehiagok ezin du bigarren hezkuntzara iritsi eta pandillen, lan informalaren eta miseriaren

menpe gelditzen dira».

Horri aurre egiteko, egiten duten lanaren berri eman dute: «Guatemalako Fe y Alegria dibertsifikatutako hezkuntza tekniko baten alde egiten dugu, gazteak lan munduan duintasunez murgiltzeko aukerak izan ditzaten. Zenbait tailerren bitartez hezkuntza akademikoa eta

baloreena osatzen dugu. Lan bitartekaritza eta lanerako prestakuntza birtuala ere eskaintzen ditugu. Honek guztiak, gazteei aukera berriak emateko bidea zabal-tzen digu».

Hirugarren Adina, Hirugarren Mundurako eta Fe y Alegria taldeei dirulaguntza ematen die Hernaniko Udalak. II

ATLETISMOA - 50. ADARRAGA MEMORIALA

Lautik hirutan, hernaniarrak nagusi

Infantiletan, Julen Goikoetxea eta Ainhoa Arruti atleta hernaniarrak izan ziren azkarrenak.

Alebin mutiletan, berriz, Gorka Lopez de Arregi. Lander Ruiz bigarren geratu zen.

ADARRAGA Memoriala jokatu zen atzo Hernaniko atletismo pistan eta atleta hernaniarrak oso emaitza onak lortu zituzten. Lau lasterketa puntuagarri izan ziren eta hirutan nagusitu ziren. Infantil mutiletan, Julen Goikoetxeak irabazi zuen eta nesketan, Ainhoa Arrutik. Alebin mutiletan, berriz, Gorka Lopez de Arregi irabazi zuen eta Lander Ruiz bigarren geratu zen. Alebin nesketan, Libe Maquet donostiarrak irabazi zuen eta Irati Lopez izan zen hernaniar azkarrena, bosgarren postua lortuta. Gainerako atleta hernaniarrak ere lan ederra egin zuten. Lau lasterketa hauetan, 46 neska-mutilek hartu zuten parte eta horietatik 16 hernaniarrak izan ziren.

Alebin mutiletan, Langile
Taldea kontuan hartuta, alebin mutiletan, Langile ikasto-



Adarragatarrei oroigarri bat eman zien atletismo taldeak.

lak irabazi zuen. Infantil eta alebin nesketan berriz, Goierri Garaiak.

Adarraga Memoriala, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketaren barruan joka-

tzen da eta txapelketatik kanpo, benjamin mailako lasterketak ere egin ziren atzo.

Oroigarria, adarragatarrei
Aurten, 50 urte bete ditu

adarragatarren omenez egiten den memorial honek eta bukaeran, atletismo taldeak, oroigarri bat eman zien Adarraga familiako senideei. II

❖ HERNANI'N MUSIK

Euskal Herriko rockaren historia aztergai, etzi

Hitzaldia eta musika entzunaldia antolatu du Musika Eskolak, asteazkenean. Hernani'n Musik egitasmoaren barruan izango da, dohainik. Euskal Herriko rock musikaren historia aztertuko dute. Ritxi Aizpuru izango da hizlaria eta musika entzunaldi akustikoa eskainiko dute Gatibu taldeko Alex Sardui eta Mikel Caballero. 18:00etan izango da Sandiusterrin. II

◆ KIROLDEGIA

Txartelak jasotzeko aukera, gaurtik

Kiroldegian bazkide diren adin txikikoek, gaurtik aurrera dute txartela jasotzeko aukera. II

❖ OBRAK

Floridako tunela itxita, gaur goizetik

Gaur goizetik 07:00etatik aurrera, Florida kaleko trenbide azpiko tunela itxi egingo dute, obretan hasiko baitira oinezkoen eta ibilgailuen pasabidea arautzeko semaforoak jartzeko. Urtarrilaren 24ra arte egongo da itxita. II

❖ SAN JOAN KONPARTSA

Batzarra, etzi

San Joan Konpartsak batzarra egingo du asteazkenean 19:00etan, Transpazarren. Hiru gairi buruz ariko dira: San Joanak, Argentina eta Inauteriak. II

❖ LAU HAIZETARA GOGOAN

Hernani eta altxamendu faxistaz ariko da Gomez

Hitzaldia izango da asteazkenean, 19:30etan Biterin. Txuso Gomez hernaniarrak hizketagai izango du, *Hernani y el alzamiento militar fascista*. Gotzon Garmendiak, berriz: *Eusko Jaurarlitzaren bake eta elkarbizitza plana eta oroimen historikoa*. II

Diseinu zerbitzurik behar al duzu?

// Hernaniko Kronikak bere publizitate saila jarri nahi du zuen zerbitzura, zuen elkarte, erakunde edota enpresak iragarki, kartel, aldizkari edota buletin irakurterazak bezain eraginkorrak plazaratzeko.

ZERBITZU BERRI HONETAN INTERESIK IZANEZ GERO, JARRI HARREMANETAN GUREKIN 943 33 08 99 TELEFONOAN EDO DISEINUA@KRONIKA.NET HELBIDE ELEKTRONIKOAN.

// Beharrezkoa duzuen lan-talde profesionala daukagu. Diseinu editoriala, alegia, liburuen konposizioa eta maketazioa, aldizkariak, katalogoak, hala nola, triptikoak, gidak, iragarkiak, kartelak... baita ere irudi korporatiboaren garapena.

Hernaniko
kronika

Allianz

ASEGURUAK

bizitza -
istripuak -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71



mikel armendariz

proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

☎ **TELEFONAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
☙ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauzez:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA
GAUR Zerua lainotuta egongo da eta zaparradak ugariak izango dira, batez ere, goiz partean. Ipar-mendebaldeko haizea bizi ibiliko da. Min.3° / Max.9°.
BIHAR Hobera egingo du eguraldiak eta ostarteak zabalduko dira, nahiz eta zaparradaren bat bota goizean. Hego-mendebaldera aldatuko da haizea. Min.5° / Max.10°.
(euskalmet)

FUTBOLA

Puntu garrantzitsua lortu zuen atzo Hernanik

● Erregional Ohorezko Mailako taldeak 0-0 berdindu zuen atzo Beti Gazteren aurka. ● Emakumezkoen taldeak 2-1 irabazi zion Zarautzi.

OSO joko ona erakusten ari da Erregional Ohorezko Mailako taldea azken partiduetan eta atzo ere oso sentazio onarekin geratu ziren bai jokalariaik, bai taldeko arduradunak. Lesakan jokatu zuten Beti Gazteren aurka, eta 0-0 berdinduta, balio haundiko puntuarekin bueltatu ziren Hernanira. Sekulako lana egin zuen taldeak, kontuan izanik, 9 jokalarirekin jokatu zutela. Alde horretatik, arbitroaren lana ez zela oso txukuna izan azaldu dute, baina



Hernani nagusi atzo, etxean.

kontu horiek ahaztu egin behar direla.

Orain, hurrengo partiduari begira daude txuriberdeak. Etxean jokatu dute Real Unionen aurka eta oraingo dinamikarekin jarraitzeko asmoa dute.

Neskak, sailkapenean gora Emakumezkoen Euskal Ligako taldeak Zarautzen aurka jokatu zuen atzo eta 2-1 irabazi zuten hernaniarrek. Sailkapenean postu bat gora egin dute. Zortzigarren daude. ■

ESKU PELOTA

Lopezek ezin, Loitegiren aurka

Ander Lopez seniorrak 23-40 galdu zuen larunbatean Gipuzkoako Trinkete Txapelketako finalerdia, Julen Loitegiren aurka. Orokorrean, ez da asteburu ona izan Hernaniko pelotariarentzat.

ANDER Lopez seniorrak oso ondo jokatu zuen larunbatean, Gipuzkoako Trinkete Txapelketako finalerdia, baina ez zuen ezer egiterik izan Julen Loitegi urnietarraren aurka. Lopezek oso txapelketa ona jokatu du eta orain eskuak erreperatu behar ditu bikotekako modalitatean jokatzeko.

7 garaipen eta 13 porrot Orokorrean ez da asteburu

ona izan Hernaniko pelotariarentzat, baina garaipen garrantzitsuak lortu dira. Esaterako, Euskal Herriko Txapelketan, Urkizu eta Altunak garaipena lortu zuten, Sub22 mailan, aurkarietako batek istripua izan zuelako eta ez zirelako aurkeztu. Txapelketa berean, Esnal eta Lizeaga seniorrek galdu egin zuten eta azken faserako pasea zaildu egin zaie.

Udaberriko Torneoaren barruan, Arizmendi-Lazkano eta Agirre-Pagola kadetek irabazi egin zuten beraien debutean. Binakako Gipuzkoako Txapelketan, berriz, Larrañaga-Salaberria eta Larburu-Gorrotxategi infantilek irabazi egin zuten eta galdu gabe jarraitzen dute. Arizmendi-Insausti eta Gorostidi-Zugasti infantilek, bestalde, galdu egin zuten. ■

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA			ESKU PELOTA - Gipuzkoako Trinkete Txapelketa		
Mut. Erreg. Oh.	Beti Gazte-Hernani	0-0	Senior-Finalerdia	Ander Lopez/Loitegi	23-40
Emak. Euskal Liga	Hernani-Zarautz	2-1	ESKU PELOTA - Euskal Herriko Txapelketa		
Mut. Erreg. Gor.	Hernani-Allerri	1-1	Seniorrak	Lea Ibarra/Esnal-Lizeaga	22-10
Jub. Mut. Eu.	Hernani-Lagun Onak	0-2	Seniorrak	Oiarpe/San Sebastian	22-14
Jub. Mut. Oh.	Añorga-Hernani	8-1	Sub22	Urkizu-Altuna/Danak Bat	22-EA
Jub. Emak. Eu.	Umieta-Hernani	1-3	ESKU PELOTA - Gipuzkoako Binakako Txapelketa		
Kad. Mut. Oh.	Hernani-Allerri	5-1	Infantilak	Añorga/Macior-Ezeiza	18-12
Kad. Em. Oh.	Hernani-Oiarzun	2-0	Infantilak	Larburu-Gorrotxategi/Mundarro	18-6
Kad. Em. 1.	Hernani Usurbil-Luberri	0-3	Infantilak	Ezeiza II-Leiza/Azkoitia	12-18
Kad. Mut. 1.	SANSE-Hernani	4-3	Infantilak	Larrañaga-Salaberria/Allerri	18-15
Inf. Mut. Oh.	Billabona-Hernani	4-1	Infantilak	Alde Zaharra/Blanco-Redondo	18-13
Infantil txiki err.	Antiguoko-Hernani	5-0	Infantilak	Azkoitia/Arizmendi-Gorostidi	18-7
Inf. Mut. 1.	Hernani-SANSE	5-1	Infantilak	Gorostidi-Zugasti/Ziotza	15-18
Inf. F-8	Amara Berri-Hernani	5-1	Alebinak	Lasa-J. Gamendia/Legazpi	15-16
ERRUGBIA			Alebinak	E. Gamendia-Perurena/Murumendi	10-16
Senior lagunar.	Hernani-Getxo	41-12	Alebinak	Tolosa/Tejedor-Fre	16-1
Mut. Euskal Liga	Atletiko SS-Hernani Landare	24-15	ESKU PELOTA - Udaberri Torneo		
Kad. (sub18)	Hernani-Durango	45-7	Kadetek	Antigua/Arizmendi-Lazkano	6-22
Inf. (sub16)	Hernani-Gaztedi	7-17	Kadetek	Agirre-Pagola/Gure Txeru	22-14
Inf. (sub14)	Hernani-Gaztedi	35-0	ESKU PELOTA - Hernaniko 4/5 Torneo		
ERREMONTEA			Seniorrak	Egoltz Altuna/Ekaltz Cisneros	22-15
1go partidua	Otaegi-Larrañaga/Segurola-Aizpuru III	35-34	Kadetek	Ander Lazkano/Toritz Berasarte	22-16
Master-Finala	Urriza/San Miguel	30-28	SASKIBALDIA		
3. partidua	Uterga-Ion/Ezkurra-Agirezabala	40-26	Seniorrak	Urrebu-Hernani	64-52
4. partidua	Mabin VI-Olazar/Juanenea-Endika	30-20			

◆ SASKIBALDIA

Urretxuarrak gehiago izan ziren

Hernanik Urretxuko Alumnos de Francisco Alberdi taldearen aurka jokatu zuen larunbatean eta 64-52 galdu zuen. Sailkapenak eta emaitzak erakusten duten bezala, oso joko parekatua erakutsi zuten. ■

◆ WATERPOLOA

Bi taldeek galdu, etxetik kanpo

Asteburu honetan, waterpoloko Hernaniko bi talde nagusiek etxetik kanpo jokatu dute eta biek galdu egin dute. Neskek Euskal Herriko Kopako partidua jokatu zuten atzo Lautadaren aurka eta 9-2 nagusitu zitzaizkien gasteiztarak. Mutilek, berriz, ostiralean jokatu zuten Bidasoaren aurka eta 12-8 galdu zuten. ■

◆ ERRUGBIA - EUSKAL TXAPELKETA

Landarek azken momentura arte eutsi arren, ezin garaipena lortu

Euskal Txapelketan, Landare taldeak Atletico San Sebastianen aurka jokatu zuen larunbatean, Aieten, eta 24-15 galdu zuen. Hernaniarrek partidua ona jokatu zuten eta azken momentura arte eutsi zioten aurkariari. ■

◆ ERAKUSKETA

Ruiz de Eguinoren eskultura eta margoak Andoainen daude ikusgai

Aitor Ruiz de Eguino hernaniarrak erakusketa jarri du Andoaingo Bastero kulturgunean. *Tururu* izena du eta aluminiozko 16 eskultura eta aluminioan margotutako beste 40 margolan ikusteko aukera izango da. Otsailaren 28ra arte egongo da ikusgai. Orduategia honakoa izango da: astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara; eta larunbatetan, 10:30etatik 13:30etara eta 18:00etatik 20:30etara. ■

◆ BASQUE CULINARY CENTER

Jatetxeetako zerbitzua hobetzeko, ikastaroa

Basque Culinary Centerren ikastaro ugari antolatu dituzte 2014rako. Besteak beste, aukera dago ikasteko, jatetxeetako arlo guztiak nola hobetu. Zerbitzua hobetzeko eta berritzeko estrategiak erakutsiko dituzte. Horrez gain, Sumilleria eta Enomarketing Masterra egiteko aukera ere badago. Otsailean hasiko da eta praktikak ospe haundiko 10 lekutan egin ahal izango dira. Informazio guztia eta eskaintza guztia: www.bculinary.com. ■

◆ IAT-ITV

Beste hilabete gehiago jarraituko du grebak

Umieta eta Irungo IAT-ITV zentroetan greban daramazkite 7 hilabete eta langileek jakinarazi dute otsailaren 15era arte luzatzea erabaki dutela, inolako pausorik ematen ez baldin bada behintzat. Lan hitzarmena berritzeko eskatzen diote Tüv Rheinland Iberica S.A enpresari eta langileek salatu dute arazoari konponbidea bilatzeko enpresak daukan interes falta: «Enpresak behin bakarrik onartu du langileokin biltzea eta hori orain dela 3 hilabete izan zen». Aldi berean, Eusko Jaurlaritzari esku hartzeko eskatzen diote, «ITVk eskaintzen duen zerbitzu publikoa EAEko administrazioaren ardura izanik». Beraz, beste hilabetez, Hernaniko eta inguruko kotxe gidariek ezingo dute Umieta zentrorra jo. ■

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Garaiea alokagai anbulatorio inguruan, 14 m2. Entrepanta du. Ate automatikoa.

Deitu: 615 00 99 26 / 943 55 04 71

ETXEO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... **Seriotasuna. Deitu:** 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajeari, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**